

Ondasunen esportazioak % 4,7 murriztu ziren 2025eko urtarrilean Euskal AEn

Inportazioek % 3,4 egin zuten behera, eta 80,7 milioi euroko merkataritza-saldo positiboa izan zuten

2025eko urtarrilean, Euskal AEko **ondasunen esportazioek** % 4,7 egin zuten behera urte arteko tasan, EUSTATEN datuen arabera. Zenbatekoa 2.264 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete bereko 2.376 milioi euroen aldean. *Energia-produktuen* esportazioak % 75,2 jaitsi ziren eta *ez-energetikoenak* % 1,0.

Bizkaia da atzerakada handiena izan duen lurralde historikoa (-% 13,1), *produktu ez-energetikoen* esportazioak (-% 3,6) eta, batez ere, *energetikoenak* (-% 76,3) jaitsi direlako. Gipuzkoan, oro har, esportazioak % 2,5 igo dira eta Araban % 1,5 jaitsi.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Urtarrila 2025

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila			Urtarrila		
	2024	2025	Gehikuntza (%)	2024	2025	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.375.909	2.263.972	-4,7	2.259.781	2.183.282	-3,4
ENERGIAZKO GAIAK	120.163	29.820	-75,2	729.564	520.065	-28,7
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.255.745	2.234.151	-1,0	1.530.217	1.663.217	8,7
URTEKO METATUA	2.375.909	2.263.972	-4,7	2.259.781	2.183.282	-3,4
ENERGIAZKO GAIAK	120.163	29.820	-75,2	729.564	520.065	-28,7
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.255.745	2.234.151	-1,0	1.530.217	1.663.217	8,7
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	766.905	755.606	-1,5	382.254	510.841	33,6
URTEKO METATUA	766.905	755.606	-1,5	382.254	510.841	33,6
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	899.795	781.606	-13,1	1.471.371	1.210.998	-17,7
URTEKO METATUA	899.795	781.606	-13,1	1.471.371	1.210.998	-17,7
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	709.208	726.759	2,5	406.156	461.443	13,6
URTEKO METATUA	709.208	726.759	2,5	406.156	461.443	13,6

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2025eko Martxoaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko **ondasunen inportazioek** % 3,4ko beherakada izan zuten, 2.183 milioi eurora iritsiz. Inportazio *energetikoak* % 28,7 murriztu egin ziren eta *ez-energetikoak* % 8,7 hazi ziren. Lurraldeka, Arabako eta Gipuzkoako inportazioek gora egin zuten (% 33,6 lehenek eta % 13,6 bigarrenek), baina Bizkaikoek % 17,7 egin zuten behera.

Lau esportazio-partida nagusiak, 623 milioi euro merkaturatuta, automobilaren sektorekoak dira, eta guztizkoaren % 27,5 biltzen dute, 2024ko urtarrilaren aldean % 11,2ko jaitsiera bateratua edukiz.

Xehetasunak aztertuz, ikusten da 969 **esportazio-partiden** rankingaren buruan honako lau hauek daudela: "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*", 248,8 milioi merkaturatuta eta % 6,5eko gehikuntzarekin aurreko urteko hilabete beraren aldean; "*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*", (178,0 milioi esportatuta —% 16,8 jaitsi da—); "*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*" (108,2 milioi —% 24,7 jaitsi da—); eta "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" (88,0 milioi —% 30,9 jaitsi da—). "*Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak*" bosgarren postuan daude 51,5 milioirekin eta % 13,6ko hazkundearekin. Urtarrilean, bost partida horiek merkaturatutako guztizkoaren % 29,8 hartzen dute, 674,5 milioi euroko balio bateratuarekin; horietatik 623 milioi automobilaren sektorera bideratuta daude (87. eta 40. kapituluak), "kautxuaren eta haren manufaktura" % 74 "*Kautxuzko pneumatiko berriei*" baitagokie. Oro har, 87. kapituluak ("ibilgailu automobilak"), 580 milioiko esportazioak izan arren, % 7,0 egin du atzera 2024ko urtarrilaren aldean.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urtarrila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.375.909	2.263.972	100,0	-4,7
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	233.577	248.789	11,0	6,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	197.380	178.024	7,9	-9,8
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	143.726	108.222	4,8	-24,7
Kautxuzko pneumatiko berriak	127.220	87.966	3,9	-30,9
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	45.310	51.479	2,3	13,6
Txorrotetarako artikulua, balbulak eta antzekoak tutuetarako	41.909	41.353	1,8	-1,3
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	32.625	36.772	1,6	12,7
Turboreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	30.022	33.336	1,5	11,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	25.150	32.201	1,4	28,0
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	33.598	30.409	1,3	-9,5
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	7.015	29.679	1,3	323,1
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	19.474	26.374	1,2	35,4
Soja-olioa	9.216	24.499	1,1	165,8
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	21.765	21.987	1,0	1,0
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	10.022	21.398	0,9	113,5
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	21.762	21.031	0,9	-3,4
Metal arruntzeko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	23.865	20.542	0,9	-13,9
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	21.209	20.205	0,9	-4,7
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	9.697	19.579	0,9	101,9
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	25.319	18.962	0,8	-25,1
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	27.320	18.611	0,8	-31,9
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaerako euskarriak	20.008	18.399	0,8	-8,0
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	17.653	18.266	0,8	3,5
Ontziak eta paketatze aparatua garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatze makinak	19.511	18.236	0,8	-6,5
Torlojuak, azkoinak, tirafondoak, malkarrak, errematxeak, larakoak, zirrindolak eta antzeko gaiak, galdaketakoak, burdinazkoak edo altzairuzkoak	16.826	17.174	0,8	2,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Martxoaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Lehenengo 25 posizioetako bat hartzen duten partiden artean, nabarmentzekoak dira *"Muga-zergen berariaz jasota ez dauden merkantziak"* (% 323,1), *"Soja-olioa"* (% 165,8) eta *"Motor eta sorgailu elektrikoak (multzo elektrogenoak izan ezik)"* (% 113,5) partiden urte arteko igoerak. Aipatzekoa da, halaber, *"Petrolio-olio finduak"* nabarmen jaitsi direla, 2024ko urtarrilean 106 milioi izatetik aurtengo hilabete berean 14 milioi izatera igaro baitira. Horrek esan nahi du % 86,6ko jaitsiera izan dela, eta esportazioen rankingean berrogeita batgarren posizioa hartu du, orain arte beti lehen 25 posizioen artean egon den arren.

Urtarrilean, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Italia eta Estatu Batuak izan ziren Euskal AEren bezero nagusiak, esportazio guztien % 50,5 hartu baitzuten. Bost herrialde horietatik hiru EB27koak dira; entitate horrek atzerrian egiten ditugun salmenten % 64 biltzen du.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urtarrila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	766.905	755.606	100,0	-1,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	217.740	232.947	30,8	7,0
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	143.369	107.276	14,2	-25,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	62.643	61.874	8,2	-1,2
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	38.783	46.986	6,2	21,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	36.595	34.544	4,6	-5,6
Ardoa, mahats freskoarena	14.026	14.911	2,0	6,3
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	11.386	14.060	1,9	23,5
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	14.702	13.487	1,8	-8,3
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	7.854	9.746	1,3	24,1
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	0	7.193	1,0	-

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Martxoaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Arabian, muga-zergen partida nagusitik —*"10 pertsona baino gutxiagoko turismoak"*— 232,9 milioi euroko balioaz esportatu da, eta aurreko urteko urtarrilarekin alderatuta % 7,0 hazi da; aitzitik, ondoren datorren partidak —*"Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak"*— % 25,2 egin du atzera. Halaber, % 21,2 hazi dira *"Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak"* (47 milioi) eta *"Trenbideetarako automotorrak eta tranbia autopropulsatuak"* (7,2 milioi) esportazioak.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urtarrila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	899.795	781.606	100,0	-13,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	77.769	64.669	8,3	-16,8
Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	29.889	33.309	4,3	11,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	64.088	25.674	3,3	-59,9
Soja-olioa	9.216	24.499	3,1	165,8
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	5.259	21.052	2,7	300,3
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	16.774	19.645	2,5	17,1
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	16.985	19.621	2,5	15,5
Arrain izoztua xerratu gabe	17.472	16.507	2,1	-5,5
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak	16.246	15.068	1,9	-7,3
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	22.160	15.063	1,9	-32,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Martxoaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaian nabarmentzekoa da, hamar partida nagusien artean, "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" (25,7 milioi esportatu eta aurreko urtean baino 38,4 milioi gutxiago, % 59,9ko murrizketa eraginez) eta "*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*" (64,7 milioi gutxiago esportatu eta % 16,8ko murrizketa) atalen esportazioen jaitsiera.

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urtarrila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	709.208	726.759	100,0	2,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	83.017	78.811	10,8	-5,1
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	29.835	33.184	4,6	11,2
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	26.964	29.548	4,1	9,6
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	17.015	22.028	3,0	29,5
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	7.527	18.983	2,6	152,2
Metal aruntezko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	22.167	18.799	2,6	-15,2
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	18.502	17.495	2,4	-5,4
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	17.258	16.616	2,3	-3,7
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	17.163	16.315	2,2	-4,9
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	0	15.565	2,1	-

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Martxoaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gipuzkoan nabarmentzekoak dira " *Motor eta sorgailu elektrikoak (multzo elektrogenoak izan ezik)*" —% 152,2 eta 19 milioi esportatuta— eta " *Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, bagajeak, posta eta abar*" —15,6 milioi esportatuta— atalen igoerak. Aitzitik, jaitsi egin dira " *Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*" (2024ko urtarrilean baino 4,2 milioi euro gutxiago) eta " *Metal arruntezko giltzarrapoak, sarraillak, morroiloak eta giltzak*" (3,4 milioi gutxiago eta -% 15,2).

2025eko urtarrilean, "Petrolio-olio finduen" inportazioak % 21,9 handitu dira, eta "Olio gordinenak" % 44,4 murriztu.

Inportazioak muga-zergen partiden arabera aztertuz gero, ikusten da garrantzitsuenak, " *Petrolio edo mineral bituminosoko olio gordinak*" (guztizkoaren % 11,6) % 44,4ko jaitsiera izan duela. " *Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarbu gaseosoak*" ere nabarmen jaitsi da (-% 45,7), 89 milioitik 48 milioira igaroz. Aitzitik, honako hauen inportazioak nabarmen hazi dira: " *10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*" (2 milioitik 30 milioira pasatuz), " *Enbolo, diesel edo erdi-diesel motorrak*" (% 642,6, eta 8 milioitik 59 milioira pasatuz), " *Produktu lau ijetziak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, baina xaflatuak edo estaliak > 599 mm*" (% 73,5, eta 28 milioitik 48 milioira pasatuz), eta " *Petrolio-olio finduak*" (% 21,9, eta 178 milioitik 217 milioira pasatuz).

Hil honetan, inportazio handienak herrialde hauetatik egin dira, hurrenkera honetan: Alemania (317,5 milioi), Frantzia (182,3 milioi), Txina (150,6 milioi), Herbehereak (122,4 milioi) eta Estatu Batuak (100,8 milioi).

ESPORTAZIOAK ESTATU BATUETARA

2024an, esportazioak Estatu Batuetara esportazio guztien % 6,4 izan ziren, 1.992 milioi euro; 2023an, esportazio guztien % 8,4 izan ziren, 2.738 milioi euro.

2024. urtean zehar, Estatu Batuetara egin ditugun esportazioak 672 produkturen artean banatu dira, eta horietako bakoitzaren guztizko zenbatekoan alde handiak izan dira. Jarraian, hamar nagusiak adieraziko ditugu, esportazioaren guztizko balioaren arabera:

- *"Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak"* 144,1 milioi (3. postua 2023an, 277,7 milioirekin), jatorria Araban (% 86) izanik; lurralde horretatik Estatu Batuetara esportatutako produktu nagusia da, guztiaren % 33, *"Mahats freskoen ardoa"*ren aurretik (% 8,3, hau da, 31,1 milioi esportatuta).
- *"Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne"*. 131,0 milioi (5. postua 2023an, 106,1 milioirekin), eta jatorria erabat Bizkaian (% 100).
- *"Petrolio-olio finduak"* 112,3 milioi (1. postua 2023an, 489,9 milioirekin), eta jatorria osorik Bizkaian (% 100).
- *"Biodiesela eta honen nahasketak, petrolio edo mineral bituminosoko oliorik gabe edo pisuan % 70etik beherako edukiarekin."* 84,5 milioi (4. postua 2023an, 191,1 milioirekin), eta jatorria osorik Bizkaian (% 100).
- *"Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobinak."* 72,8 milioi (8. postua 2023an, 62,0 milioirekin), eta jatorria Bizkaian (% 95).
- *"Motor eta sorgailu elektrikoak (multzo elektrogenoak izan ezik)"* 70,4 milioi (9. postua 2023an, 43,0 milioirekin), eta jatorria Gipuzkoan (% 95).
- *"Ehizarako su-armak; jaurtigairik gabeko pistolak, seinale-pistolak eta soka-jaurtigailuak"* 59,6 milioi (6. postua 2023an, 69,3 milioirekin), eta jatorria Gipuzkoan (% 76,6).
- *"Metala lantzeko mekanizazio-zentroak"* 52,0 milioi (74. postua 2023an, 4,5 milioirekin), eta jatorria Bizkaian (% 58), Gipuzkoan (% 35) eta Araban (% 7).
- *"Makina-erremintarako zatiak eta osagaiak."* 49,8 milioi (17. postua 2023an, 27,9 milioirekin), eta jatorria Gipuzkoan (% 77), Bizkaian (% 15) eta Araban (% 8).
- *"Tenperatura altuko harrikatz-mundrunen destilazioko olioak eta produktuak (Bentzola, Toluola, Xilola, Naftalenoa, Fenola, etab.)"* 43,6 milioi (ez zen produktu horren esportaziorik izan 2023an), eta jatorria erabat Bizkaian (% 100).

Aipatutako produktuez gain (garrantzitsuenak dira horiek), badira zenbait produktu (muga-zergen partidak) edo artikulua (muga-zergen posizioak) bereziki Estatu Batuetako muga-zergen aldetatik jasan ditzaketenak, hala nola:


- *"Mahats freskoen ardoa"*, 36,4 milioi esportatuak.
- *"Arrain-prestakinak eta -kontserbak"*, 5,7 milioi.
- *"Txokolatea eta kakaoa duten gainerako jakiak"*, 1,2 milioi.
- *"Okintza, pastelgintza, galletagintza produktuak, barkilloak eta olatak"*, milioi 1,0.
- *"Krustazeoak"* 0,7 milioi.
- *"Vermuta eta landare aromatikoekin prestatutako mahats freskoko gainerako ardoak"* 0,3 milioi.

- "Barrilak, upelak, tinak eta upelgintzako gainerako manufakturak eta horien zatiak, zurezkoak, upa-oholak barne" 0,2 milioi.
- "Sagardoa, udare-zuku alkoholaduna, ezti-ura eta hartzitutako gainerako edariak" 0,2 milioi.

Aparteko aipamena merezi dute "Automobilgintza" sektoreak, non Estatu Batuak horrelako produktueterako ranking esportatzailearen hogeita bigarren postuan dauden, 61,1 milioi esportaturekin, eta "Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuak eta materiala" sektoreak, zeinarentzat herrialde hau hamahirugarren postuan baitago, 14,0 milioi euroekin esportatuta.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62